

EUSKO JAURLARITZAK 50 URTE

«Jaungoikoaren aurrean apalik, euzko-lur gañian zutunik, asabeen gomutaz, nere aginduba ondo betetzia Gernika'ko zuaizpian zin dagit». Jose Antonio Agirre ta Lekube'k, 1936'ko urriaren 7'an.

Egun batzuk lentxeago, urria'ren 1'ean, Madrileko Lege Biltzar Nagusiak onartu zuen «Euzkadi'rentzat berjabetasun araudia», ia cun urtez, 1931 geroztik, batez ere, gero ta biziago euskaldunek eskatua. Estatuto orren arautan Jaurlaritza edo Gobernurik ez da aitatzen. Zergatik ote?

Sarritan oi danetz, Araudiaren ondoan bitarteko erabaki batzuk datoz. Or, leenengoan ain zuzen, ipiñi zituzten «bitarteko jaurlaritzaren» zeregiñak eta «Lendakaria» autatzeko arauak. «Oraingo gudak diraun bitartean, Araudi onek aitortzen ditun eskubide guzien jabe dan *bitarteko Jaurlaritza* baten esku izango da erri-agintea».

Erabaki orren arabera, Gernika'ko Batzar aretoan, Bizkai'ko Gobernadore zibilla mai-buru zela, arratsaldeko bostetan aztertu zituzten boz txartelak. Jose Antonio Agirre'k 291.471 boto jaso zituen; Ramon de Madariaga'k, berriz, 100; Araba, Bizkaia ta Gipuzkoa'ko boz-emalleak 1009 zirelarik. (*Oartxo bat*. Euzkadi'ko Agintaritzaren Egunerokoa'n: «arratsaldeko lauretan» dio euskeraz; eta gazteleraz, «siendo las diecisiete horas»).

Leenbiziko lanak

Egun bercean osotu zuen Agirre'k leen Gobernua: 5 EAJ'koak ziren; 3 PSOE'koak; IR'tik 1; UR'tik beste 1; ANV, koa 1; PC'koa beste 1. EAJ'koak izan dira ezagunenak guretzat: Agirre, Leizaola, Monzon... Aietako iru bizirik ditugu: Leizaola, (EAJ); Nardiz, (ANV); Astigarrabia, (PC).

Eta galdera bat sortzen zait: Nola moldatu zuen Agirrek ain aguro ainbat alderdietatiko Gobernu au?

Arratsaldeko lauretan (ala bostetan?) asi-ta: Lendakariaren auteskundera, Gobernadorearen itzaldia, amaika Burukide edo Kontseilarien izendapenak, Euzkadi'ko Agintaritzaren Egunerokoa sortzeko agindua, eta «Jaurgo Agerpidia», (Gobernu programa). Bada zerbait arratsalde baterako! Lapikokoa naiko samurtua zegoen nunbait.

Jaurlaritzak zituen lan asmo ta gogoa leen egunean bertan argitaratu zituen «Jaurgo agerpidia» delakoan. (Egunerokoa gi-



J. A. Agirre de Lecube

puzkeraz idatzia dago; Jaurgo agerpidia, berriz, Aranaren edo bizkaiera utsean). Auek dira, ba, lan asmo beñienak: gudan «garaien osua lortu ta bakia jarri ta indartu»; «euzko-gizonen esku-bidiak» ondo begiratu ta zaindu; erri-bakia gogoz zaindu; agintza bakarra gerra arazoetarako; ertzantza sortu; sozial lege berri egokiak asmatu; «espetxeratuben egokerea zuzendu»; «ikaste malla guztietan irakaskintza azkea ta euzkerea erabiltia lagipetu»; «euzko-erriaren ezaugarriak zaindu»; «euzko lurak lenbaitlen berri-ro gureganatu».


Gudari eta...

Lan astuna jaurlaritzak leporatu zuena. Gerra zitala bere gorputz barrunean: armak, gudariak... dana berri berritik atera bear; millaka giza-ernakume, aur eta abere, beren etxeetatik iges zetozenak, jaso, babestu ta ornitu... Ala ere «Euzko Irakastola Nagusiaren oñarriak gertutzeko batzordea» izendatu ta «Osakintza Ikastola» eratzen zuen agindua urriaren 12'an agertu zen Euzkadi'ko Agintaritzaren Egunerokoan. Alajaiña!

Urriaren 31'an Zabalburuko «Reparadoras» lekaimen lekaimetxea artu (inkautau) zuen Gobernuak, Gizartelaguntza zaingoaren Burukidea zan Gracia'tar Jon sozialistak izenpetu zuen aginduz. Azaroaren 3'an burukide berak Begoña'ko Joseba Donearen Karmeldarren lekaimetxea; eta lekaimen oiena den beste etxe bat: «etxeak eta barrunean dauden etxe tresnak ere bai... darabilkigun elburuarentzat egokiak balira beñepein». Erti edo erlijioari dagozkionak izanik, Erri-Lantze Zaingoak gordeko ditun gauzak geratuko dira artu barik». Azaroaren 13'an, Leizaola'tar Josu M^a, Zuzentza ta Gogo-Lantze Burukideak izenpetutako aginduz, Begoña'ko Monike Donearen lekaimetxea, tresna, baratza ta guzti espetxetarako; eta «Begoña'n dagon Karmelo Lekai-etxea, tresna ta baratza, espetxetarako».

«Euzko Irakastola Nagusia sortua izan bedi» zion agindua Azaroaren 17'ko Egunerokoak dakar. Agindu txalogarria, benetan, baiñan frutu askorik eman ezin izan zuena.

Milla bederatzireun eta ogetamazapigarren urteko udaberria. Bilbo zaintzeko eratua zuten «burnizko esia» autsi dute Franco'tarrek. Laister Bilbo'ratu ditezke. Millaka aur eta eldu Santander aldera, Frantzia'ra, Belgika'ra, Ingalaterra'ra, Errusia'ra, Frantzia'tik Katalunia'ra... Deustuko Unibertsitatea ta ainbat etxe ta industri salbagarri osorik zaindu... Aiek lanak!




Lehen Eusko Jaurlaritza

Errepublikako Agintarien zaputza jasan eta KATALUNIA-RA'RA jo bear izan zuten Agirre'k, Euzko Gudarosteak italiarrekin ituna egiten zuelarik: ezer gutxirako balio izan zuten ituna! Beste euskaldun asko ta asko ere. Frantzia barna kataluniaruntz joan ziren... «Gernika», «Otxandiano», «Montealegre» ospitalak edo eritetxeak eratu... Urte t'erdi batez egin zuten lanik Agirrek Katalunia aldean erri gizajoari laguntzen!

Katalunia'tik, berriz, beste agintari batzuekin Frantzia'ra 1939'ko otsaillaren 4'an. Eun eta larogei millatik gora ara iges etorri euskaldunak. Aientzat ere ospitalak eta eritetxeak, 14.000 aurrentzako egoitzak. Beren katolikotasuna garbi erakutsi, etsaiek ereindako izen txarrari aurka egiñez... Paris'en orraitio, lagun andiak lortu zituzten: Mauriac, Maritain, (idazle ta filosofo ospetsuak), Verdier kardinala, eta abar.

Bañan Hitler'en gudariak jo ta apurtu datoz Frantzia bar-

na; Franco'ren lagunak dira... Eraso gogorrek euskaldunentzat!... PSOE'ko aundiki batzuen ezbaiak... Berlin, Londres, Mexiko, New York,... pasa-ta, 1946'an Gobernu berria eratzen du Agirre'k Frantzia'n.



J.A. Agirre, Gernikan 1936'ko urriaren 7'an, zin egiten

PSOE ta PC'tarren arteko tirabirak... Amerikanoek eta europarrek Franco, antikomunista delakotan, on xamartzat begiratzen asiak direla... Euzko Jaurlaritza laguntza ofizialik gabe geratzen da, bazterrean, ixilpean. Franco bera ere ez izan berez berez lurrera datorren sagar ustela!

Aize berriak jotzen dute gañera barrutik-eta: EGIN-ETA, Monzon... Agirre 1960'an il eta, Leizaola da Lendakari berria. ETA'k armak erabiltzen ditu; erailketak; Burgos'ko auzia... Ta Leizaola jaunak erabaki jatorra artzen du: «Onezkero barneko aberzaleak joka dezatela aurrean». Arazo larriren batetan edo izan ezik Euskal Gobernua ixilik egongo da, atzetik begira, zaintzen.

Agintaritza berria

Azken baten il da Franco. Demokrazia; auteskondeak; Euskal Parlamentarioen Bazkuna Gernika'n, 1977-06-16'n, alderdi guztietakoak, Naparroako UCD'tarrak ezik, elkarturik.

Urrengo urtean Eusko Kontseilu Nagusia, PSOE'ko Erramon Rubial Lendakari delarik. Urtebete geroxeago berriro ere auteskundeak: 1979-03-01'an, eta Karlos Garaikoetxea, EAJ'koa, Lendakari.

Orain, bai, oraingoan badu uste onik Leizaola jaunak: Frantzia utzi ta Gernika'ra dator, eta antxe, 1979-12-16'an, ematen dio amaiera bere Lendakaritzari Garaikoetxearenarekin lotuz. Agur, Paris!

Autonomi Estatutoarekiko burruka. Alderdi guztiak elkarturik, alajaiña; Espainia'ko Konstituzioan sustraitzen delako aitza-kiak-eta ere badiran arren. Euskal Erriak 1979-10-25'ko erreferendunean onartuko du Autonomi Estatuto berria. Bigarren kapituloan, 29-33. artikuluetan, damazki Euskal Gobernuaren eta Lendakariaren eginkizun-erantzunkizunak.

Illebetetxo batzuk geroago, epaillak 9 zituelarik, berriro auteskundeak: Euskal Legebiltzarra, Parlamentua osotzeko, alegia. Nazionalistak nagusi; EAJ'ek bakarrik 25 biltzarkide. Jorraillaren 9'an Karlos Garaikoetxearen zin itzak: «Jaungoikoaren aurrean apalik...»; berrogetalau urte lenago Agirrek esan zituenak. Urrengo 24'an plazaratzen ditu Euskal Jaurlaritzako Saillak eta Saillburu edo Kontseilariak: 13; jeltzaleak. Teknikotasunari jeltzaletasunari baño balio aundiagoa emango ziola aitortu zuen Lendakariak. Jorraillaren 30'an dator «Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria'ren leen alea, erderaz eta euskeraz. Erderaz onela dio: N.º 1 B.O. DEL PAIS VASCO - 30 Abril de 1980. Euskeraz, berriz: EUSKAL HERRIKO A.A. - 1980 ko Jorraillak 27.

Leizaola lasai geldi ditek: Eusko Jaurlaritzak eta euskaldunak bizirik diraute; Euskal Erria aurrera ta gora dioa.

Lau urtez lan ta lan jardun ondoren, berriro ere auteskundeak, jakiña, ta EAJ'ak irabazi. HB'koak ez doaz Parlamentura; EAJ'koak 32 dira; 32 beste alderdietakoak ere.

Gaur, 1986-10-7'an, Jose Antonio Ardanza jeltzalea da Lendakaria. Gazteiz'ko Ajuria Enea'n eta Gernika'n ospatu ditu Jaurlaritzaren 50 urteak.

Luis Zubizarreta